

Ipuñak

CHARLES PERRAULT

Charles Perrault'en Ipuiñak
bigarren argitalpena

Etxebarria'tar Juan Anjel'ek
euskeratuta



S. Anton'go Katekesia
Euskal-argitalpenak

Algorta'ko

Zabala'tar Onintza'ri:

Sendo ta zaillu,

bakun ta eder.

Arraza-ixpillu

zuregan dager.

CHARLES PERRAULT

(1628-1703)

Ospe andiko ipuin-saillaren egillea. Irakurle geienak ipuiñok baiño ez dabe irakurri bererik. Baiña, beste gai asko ere erabili ebazan.

1654-garrenean lenengo neurtitzak argitaratu zituan.

1660-garrenean «Maitasun ta Adizkidetasunaren Alkarizketa».

1675-garrenean «Itz lau ta neurtuzko idazkien bilduma».

1686-garrenean «Paulin Deuna, Nola'ko Gotzaiña».

1687-garrenean «Koldobika Andiaren gizaldia».

1688-garrenean «Antziñako ta gaurkoen arteko bardiñtzea, antze ta jakintza-gaietan».

1694-garrenean «Andrazkoen alde-Ipuiñak bertotan».

1696-garrenean «Gure gizaldian Prantzi'n agertu diran gizon ospetsuak eta euren gizantza».

1967-garrenean «Lengo denporetako ipuiñak, aterakizun bana dakarrela».

Ta beste zenbait lan argitara emon ebazan.

Etzan ipuinlari utsa izan. Ikusi dogunez, bestelako elederlanetan be jardun eban. Ta orduko idazleen arteko

eztabaidetan tartetu ere bai. Abididez, XVII-garren mendeko azkenengo urteetan «Antziñakoen ta oraingoan arteko eztabaida» oso bizi agertu zan. Antze-lanetan, klasiku-tankerakoetan joera bi nabari ziran. Bata, adimenak; bestea, eder-senak gidatuta. Lenengoenak antziñakoengandik urrundu ta norberaren iritzietan sendotu; bigarrenenak antziñakoakana biurtu ta arein ereduak ikastera bultzatzen gaitu.

Etzan edozelako burruka: Erregeri eskeiñitako garai-kunde-uztai baten ia irakurgaiia lateraz ala prantzeraz jarriko ete zan. Ori ere eztabaida-gai.

Gorabera askoren ondoren 1687-garren urtean, Perrault'ek Akademian irakurritako poema baten eguneko olerkariak gerkar eta erromatarrak baiño geiago zirala ots egin eban:

«La belle antiquité fut toujours vénérable,
Mais je ne crus jamais qu'elle fût adorable.
Je vois les anciens sans plier les genoux;
Ils sont grands, il est vrai, mais hommes comme nous,
Et l'on peut comparer, sans crainte d'être injuste,—
Le siècle de Louis au beau siècle d'Auguste».

(Antziñate ederra beti izan da begiragarria; baiña, iñoiz ez dot uste izan gurgarri danik. Belaunbikotu bari begiratzan ditut antziñakoak: andiak dira, benetan; gu lako gizonak, baiña. Ta zuzengabe izateko bildur ba-

rik, Koldobika'ren gizaldia ta Augusto'rena anditasunean alderatu leitekez).

Bere ondorengo idazkietan sendoagotu egiten dau bere eritxia: giza-legeak aurrerapena dakar berekin. Jakintza-gaietan antziñakoak baiño geiago dakigu. Eler-tian bardin, gaiña artu bear dautsegu. Azkenik, oraingozaleak irabazi.

Oargarri bat dager here ipuiñetan. Esopo'k-eta aurkeztutako notiñak, giza-izakeraz dira oargarri ta ikasgarriak. Enparau zertzeladetan, naiz orduko naiz beranduagoko naiz gaurko garaian sartu leitekez. Perrault'ek, orretan La Fontaine'k ere bardin dagi, bizi diran sasoiko jantziak, oituraz, buruausteakaz eta tokietan agerrarazten dauz bere notiñak. Beste errietako maitagarriak ez dira giza-endakoak. Perrault' enak, barriz, gure antzekoak, gure ondo-ondokoak. (Euskaldun ipuiñetako lamiñak here, giza-izakera ta gorpuzkera dabez eta giza-sentipenak darabilz askotan). Bere ardatz-notiñak ez uste irudi-amets utsak diranik. Bizitzako andra-gizonen izakera, sentipen ta biozkadaz jantziak baiño.

Or daukazuz Perrault'en lau ipuin, prantzeratik zuzenzuzen euskeratuta. Siñistuteko gatzak dirala? Aztuteko gatzagoak, bein irakurri ezkeru. Or dauke umeak irudi-mena nun asetu ta gogoa nun gozatu. Ta adiñekoak, ume-aroko amets gozoak gogoratuaz, inguruko euren ume-entzako ederrez beteriko irakurgaiia.

Euskeratzaileak.



TXANOTXU GORRI

Beiñola neskato baserritar bat bizi zan: inguru aretako politena. Bere ama zoraturik egoan beragaz; eta bere amama zer esanik ez. Amamak txanotxu gorri bat egin eutson. Ain eder egiten yakon ta Txanotxu Gorri deituten eutsoen.

Bein amak talo batzuk egin eta esan eutson: «Zoaz amama ikustera, gaixorik ei dago-ta. Eroan egiozuz talo bat eta katillu bete esne au». Txanotxu Gorria amamagana abiau zan, alboko baserrira.

Baso baten zear joiala, otso malmutzagaz topo egin eban. Neskatilea jateko gogoa egin yakon otsoari; baiña itxi egin eban, oraindiño egurgilleak basoan egozan-da.

Nora zoaz?, esan eutson otsoak. Ta neska gaixoak, otsoagaz barriketan asi ezkerro zelako arriskuan sartzen zan jakin barik, esan eutson:

«Amamarenera noa ta taloa ta esnea da-
roadaz emen berarentzat, amak emondakoak.

—Urrun bizi da?, itandu eutson otsoak.

—Bai!, erantzun eutson Txano Gorriak.
Ikusten a errota, an urrun? Ba, errota pasau ta
lenengo etxean.

—Ederto!, otsoak. Neuk bere ikustalditxo
bat egin bear dautsot. Ni bide onetatik zu or-
ko orretatik: ia nor ariñago eldu».

Otsoak bide laburragoa artu eban ekiña-
lean. Neskatoak, barriz, luzeagoa. Eta an joian,
nasai-nasai, urrak batzen, mitxeleta- atzetik
lasterka ta lore-txortak egiten.

Otsoa beingoan eldu zan amamaren etxe-
ra. Jo eban atean: tan, tan!

«Nor da?

—Txanotxu Gorria naz, esan eban otsoak
abotsa aldatuaz. Talo ta esnea dakartzudaz.
Amak emon daustaz zuretzat.

Amama makal samar ebillen, bai, ta esan
eutson oetik: «Eragiozu kisketari ta sartu».

Otsoak kisketari eragin ta barrura.



Amamaren gaiñera salto egin ta osorik iruntsi eban txakada baten; iru egun ba-ziran baraurik egoala. Gero atea itxi ta amamaren oean sartu zan, Txanotxu Gorriaren begira. Laster zan ate-joka neskatotxoa: tan, tan!

«Nor da or?»

Txanotxu Gorria, otsoaren abots garratza entzutean, bildurtu zan. Baiña amama zurrus egoalakoan, erantzun eban: «Txanotxu naz, amama. Talo ta esnea dakardaz emen zuretzat, amak emonda.

Otsoak, abotsa leunduz, deadar egin eutson «Eragiozu kisketari ta sartu».

Txanotxuk kisketari eragin eutson ta etxean sartu zan.

Otsoak, sartzen ikusirik, maindirepean ostenduta esan eutson: «Itxizuz talo ta esnea kutxa-gaiñean, ta erdu ona, nire oera.

Txanotxu Gorria soiñekoa erantzi ta oera sartu zan. Amamaren itxura ikustean arritu zan.

Ta esan eutson: «Amama, zelako beso andiak daukazuzan!

—Zu obeto laztanduteko, enetxo!

—Ene, amama, zuk daukazuzan anka itzalak!

—Obeto laster egiteko, umetxo!

—Belarriak zein andiak dituzun, amama!


—Obeto entzuteko, maite!

—Ta begiak andi-andiak dituzu, gero!

—Zu obeto ikusteko, laztana!

—Ene amama, zuk daukazuzan agin ikaragarriak!

—Zu jateko dira! «Ta itzok esanaz batera, otsoa Txanotxu Gorriagana oldartu zan eta jan eban.



MAITAGARRIAK

Bein alargun bat bizi zan bere alaba biakaz. Zarrenak amaren antza andia eban, bai izakeran, bai arpegian. Bera ikustean ama zala pentsau lei. Biok ain ziran arro ta antojagarri, ezin leike eurakaz bizi.

Gazteena aitaren antz-antzekoa zan, zintzo ta atsegingarria. Ori zala-ta, iñoiz ikusi dan andra ederrenetarikoa zan. Idekoak idekoekin nai, ta gure ama bere alaba nagusiagaz zoraturik egoan. Era berean, ikusiezin ikaragarria eutson txikiari. Sukaldean jaten beartu ta eten barik lanean erabillen.

Beste zeregin batzuen artean, neska gaxoak etxetik legoa erdira joan bear izaten eban uretan, egunean bi bidar, ta pitxar andi bat urez beterik ekarri.

Egun baten, iturrian egoala, andra gizajo bat etorri yakon edateko ur-eske.

«Bai, pozik, andra ona», esan eutson neskatillak; usuilla berealaxe garbitu iturriko leku garbienetik ura atara ta andrari eskeiñi eutson, usuillari beti oratuaz, errezago edan egian.

Andra arek, edanda gero, esan eutson: «Neska polita, ona ta zintzoa zara-ta, bezuza bat egin bear dautzut. Andra a, izan be, maitagarri bat zan, neskatillaren zintzotasuna nora-giñokoa zan jakiteko, baserritar andra baten itxura artu ebana. Ta auxe da nire bezuza, jarraitu eban maitagarriak; zure berba bakoitzeko lora bat edo arribitxi bat urtengo yatzu aotik».

Neskatillea etxeratu zanean, amak agiraka egin eutson, iturritik ain berandu etorri zalako. «Parkatu, ama, esan eban gizajoak, berandu etorri ba 'naz». Ta itzok esanaz batera, larrosa bi, pitxi bi ta ikatzarri bi urten yakozan aotik.

Ene!, esan eban bere amak guztiz arriturik; pitxiak eta ikatzarriak aotik urteten yakoz! Ze-ian izan daiteke au, ene alaba?» (Orduan deitu eutson lenengoz alaba).



Neska tolesgabeak jazo yakon guzti-guztia azaldu eutson, ezin esan-alako ikatzarriak jaurtitzen ebazala.

«Nire alaba bialdu bear dot, bai orixe, esan eban amak. Aitu, Pantzike, ikusi zure aitzari dariona berba egitean; ez dozu gura esker auxe lortu? Joan iturrira uretan ta, andra gizajo batek ura emoteko eskatu dagitzunean, emon egiozu.

—Ondo etorriko yat, erantzun eban zantarrak, iturrira joatea!

—Bai, bai, joan zaitez aguro, jardetsi eutson amak.

Joan zan, bai, baiña bide guztian asarrez. Etxean egoan zidarrezko edontzi onena artu eban. Iturrira eldu zaneokoxe, ederto jantzitako andra bat agertu yakon basotik, ur-eske. Bere aitzari agertu yakon maitagarri berbera; baiña erregin-gai baten itxura ta soiñekoekin, beste neska onen eskertxarra noragiñokoa zan ikusteko.

Arroak alakoak esan eutson: «Zer uste dozu, zuri edaten emoteko etorri nazala ona, ala?»

Ain zuzen be, zidarrezko ontzi au berariz ekarri dot zuri edaten emoteko; gura ba dozu edan.

—Ez zara oso begikoa, esan eban maitagarriak asarratu barik. Orregaitik, oso adeitsu ez bai zara, artu nire bezuza: diñokezun berba bakoitzeko suge bat edo lupu bat urtengo yatzu aotik».

Ikusi ebaneko amak deadar egin eutson: «Ta, alabatxu?».

—Ta, zer, ama? Erantzun eutson zitalak, suge bi ta lupu bi jaurtiaz.

—Ene Jaungoiko! oi u egin eban amak, zer da au? Bere aitzak dauka errua: ikusiko dau». Ta an joan zan zigortzeko asmoz.

Neska gaixoa iges egin ta alboko basoan ezkutatu zan. Erregearen semeak, eizatik etorren orduan ta, ain polita ikusirik, itandu eutson ia zer egiten eban an bakarrik eta zergaitik egoan negarrez.

«Ene jauna, nire amak etxetik bota nau».

Errege-semeak, aren aotik bost edo sei pitxi ta ikatzarri urtetan ikusirik, nundik etorkiozan esateko agindu eutson. Berak, orduan, jazoriko guztia edestu eutson. Errege-semea maitemindu zan eta, alako emaitza beste edonori ezkontzarako emondakoa baiño andiago zala-ta, bere aita erregeren jauregira eroan eban. Ta antxe beragaz ezkondu zan.

Aren aizta, barriz, gero ta gorrotagarriago biurtu zan. Tan amak etxetik bota eban. Zorigaiztokoa ibilli ta ibilli, artu gura leuken iñor aurkitu ez ta baso-bazter baten il zan.



BIZAR URDIÑA

Antxiña gizon bat bizi zan, guztiz aberatsa bera. Uri ta baserrietan guztitariko edertasunez ornidutako bizi-tokiak eukazan; urrezko ontziak, zaldiburdiak eta abar. Baiña, zoritxarrez bizarra urdiña eukan, bai, ta guztiz motza ta ikaragarria emoten eban. Ori zala-ta, andra ta neskatilla guztiak bere ondotik iges egiten eben:

Auzoko andra andiki batek alaba bi eukazan zein baiño zein ederragoak. Gure gizonak bere alabetako bat eskatu eutson, ezkontzeko asmotan, berak gurago ebana aukeratzeko esanaz. Eurak, baiña, ezetara be ez eben gura bizar urdindun gizonik senartzat artu. Gaiñera, len be, beste andra batzuk emaztetzat artu ebazan ta iñork ez ekian arein barririk. Orixe zan gure neskatillak geien atzeratuten ebazana.

Bizar Urdiñak, eurakaz ezagutza egiteko, bere basetxe batera eroan ebazan, euren amagaz, iru edo lau adizkide barrukoenakaz eta auzoko neska-mutil batzukaz. Zortzi egun emon ebazan bertan. Ango bizimodu ederra! Eiza-arrantzan ibilli, jaiak, dantzak, jan-edanak; gabetako jolastu bearra zala-ta, lorik be ez eben egiten. Gure neskatilla bietatik gazteenari, orraitio, etxeko jaunaren bizarra ez zala ain urdiña iruditu yakon, ta gizon bikaiña be ba-zala asi zan pentsetan. Urira atzera joan ta berealaxe ezkontza egin zan.

Illabetegarrenean, Bizar Urdiñak esan eutson bere emazteari garrantzi andiko ibillaldi bat egin bearrean zala bere lurraldeetan zear, sei astéz edo. Ta bera kanpoan zan bitartean jolas eta alaitasunez biziteko; bere lagun zintzoenak ekarri ta basetxera eroan egizala, ego ki ba'eritxon.

Ona emen, esan eutson, gela nagusi bieta-ko giltzak. Beste oneik urre-zidarrezko ontzi-platerak dagozan gelakoak; egunero ez erabili, gero. Oneik urre-zidarra ta arri-bitxiak gor-

deta daukadazan kutxakoak. Beste au gela guztietakoa. Ta onako au... Ba-dakizu beko galerian dagoan gela txikia? Angoxea dozu giltzatxo au. Zabaldu gura dozun atea, edonun sartu, gelatxo onetan ezik. Bertako atea idegiten ba dozu idegi, gorriak ikusi bearko dozuz, gero!

Emazteak bere esanak zeatz beteko ebazala agindu eutson. Bera orduan emazteari laztan bat emon ta an doa bere zaldi-burdian ibillaldia egiten.

Auzokoak eta adizkideak ez ziran luzaroan egon ezkonbarriaren deiaren begira. Bere etxeko aberastasunak ikusteko gogo bat euken! Alan be, len senarra etxean egoala, ez ziran ausartu. Aren bizar urdiñak bildurra emoten eutsen-da. Berealaxe asi ziran danak gelarik gela, bazter guztiak arakatuten. Bata ederra ba'zan, bestea ederragoa.

Areto nagusietaraiño be sartu ziran. A zan ikuskizun zoragarria! Oialak, oeak, besaulkiak, maiak-eta: Ixpilluak, oiñetatik bururaiño ikusteko modukoak. Batzuk urrezko, bestetzuk zi-

darrezko markodunak. Iñun bere ez eben alako edertasunik ikusi. Euren lagunaren zoriona zala-ta, ba-zan naiko zarata ta jardun bearra. Berak, barriz, ainbeste edertasunen aurrean egon arren, beko bizitzako gelatxoa ikustatzea besterik ez eban gogoan.

Ikusgurak bultzatuta, lagun-aldrax azturik, ezkutuko eskillera batetik jatsi zan itsumustuan musturra apurtzeko agiñean.

Gelako atera eldu zaneokxe apurtxu baten gelditu zan senarraren agindua gogoratuaz. Baiña barruko zirikadari ezin eutsin. Giltzatxoa artu ta atea zabaldu eban esku-ikaraz.

Lenengotan ez eban arean ikusi, leioak itxita egozan-da. Laster konturatu zan gelako beia odol gogortuaz estalduta egoala. Ormetan andrazko batzuen gorpuak ageri ziran, beiako odolean isla egiten ebenak. Bizar Urdiñaren lengo emazteak ziran, bata bestearen ondoan lepo mozturikoak. Eriotz-ikaraz lotu zan gaixoa, ta serrailutik kendu orduko eskuetatik jausi yakon giltzatxoa.



Seneratu zanean giltza jaso ta itxi eban atea. Igon eban bere lo-gelara baretuteko asmoz, baiña ezin. Orrenbesterañoko larriak artu eban-da.

Zorioneko giltza odolez loituta ikustean asizan garbitu nairik bein da birritan; jaboitaa areagaz ondo igortzi arren, alperrik. Lilluratu ta egon giltza! Guztiz garbitzeko erarik topau ezin. Odola alde baten kenduala bestean agertu.

Bizar Urdiña gau atantxe etorri zan atzera bere ibillalдитik. Urten-azo eban arazoa bere alde konponduta egoala gaztigatu ei eutsoen bidean. Bere emazteak aletinak aletin egin ebazan bere etorreraz pozik zala erakustearren.

Biaramonean giltzak atzera eskatu eutsozan. Emaztearen esku-dardarean berealaxe igarri eban Bizar Urdiñak zer jazo zan.

Zergaitik ez dago emen besteakaz beko gelako giltza?, esan eutson senarrak.

—Nire mai-gaiñean aztuta itxi dot, antza, emazteak.

Ta Bizar Urdiñak:

—Ekarri egidazu beingoan.

Ta gogoz bestera ba'zan be, ekarri bear izan eutson. Ondo aztertu ondoren ba-diñotso Bizar Urdiñak emazteari: Nundik nora daukaz odol-mantxa oneik?

—Ez dakit, ba, erantzun eutson andra gai-xoak, eriotza baizen zurbil eginda.

—Ez dakizula, e?, jardetsi eutson senarrak. Neuk ondotxo dakit. Gelan sartu gura izan dozu. Bai, sartuko zara, ta ikusi dozuzan andra orrein ondoan leku bat izango dozu.

Bere senarraren oiñetan auzpeztu zan negarrez eta parkamena eskatuz, zintzo ez izanaz ondo damututa. Arriak eurak bigunduko ziran bere edertasun ta atsekabea ikusita. Baiña Bizar Urdiñaren biotza atxak baiño gogorrago zan-da:

—Il bear dozu—, esan eutson. Ta laster atan be!

Il bear dodan ezkerro, erantzun eutson be-rari begira ta negar malkoak begietan, emoi-dazu astia Jaungoikoari otoi egiteko.

—Ordu laurden bat daukazu; minutu bat geiago bere ez.

Bakarrik aurkitu zanean deitu eutson bere aizta Ana 'ri ta esan eutson: «Anatxu laztana, igon torrera ta begiratu ia nire nebak datoza-nentz. Gaur etorriko dirala ni ikustera agindu dauste. Ikusten ba 'dozuz, keiñu egiezu bizkor ibilli daitezana».

Igon zan Ana torrera ta emazte gaixoak lan-tzean bein: «Ana laztana, iñor ikusten dozu? Ta Ana'k ari: «Eguzki argia ta bedar orlegia, besterik ez dot ikusten».

Bitartean Bizar Urdiña, eskuan aizto andi bat ebala, asi yakon bere emazteari oiuka: «Jatsi ortik aguro; osterantzean neu igongo naz orraiño».

Itxaron apur baten oraindik, arren!, eran-tzuten eutson emazteak. Ta barriro aopean: «Ana biotzekoa, ez dozu iñor ikusten?» Ta Ana

'k ostera: «Eguzki argia ta bedar orlegia baiño ez».

«Arin jatsi, deadar egiten eban Bizar Urdiñak. Bestela...»

—Ba-noa, erantzuten eutson emazteak eta barriro aitzari: «Ana, iñor ez dozu ikusten onuntz etorten?»

—Auts-odei bat dakust, emetiko alderditik datorrena...

—Nire nebak ete?

—Ez, aizatxo, artalde bat dozu...

Bizar Urdiñak asarrez: Ez dozu jatsi gura?

Ta emazteak: Itxaron apur baten!, iñotson senarrari, ta gero aitzari: Ana, ene Anatxu, ez dozu iñor ikusten?

—Zaldun bi ikusten dodaz onuntz etorten; oraindiño lekutan dagoz... Gerotxuago, Jaungoiko maitea!, egin eban. Gure nebak dira. Arin egiteko keiñuka ari nayake.

Orduantxe asi zan Bizar Urdiña orroaka, etxe guztia ikaratuteko bestean. Emazte gai-

xoa jatsi ta aren oiñetan jausi zan negar-intziriz.

«Alperrik ari zara negarrez, esan eutson Bizar Urdiñak: il-bearra zara». Itzok esanda, oratu eutson uleetatik esku bategaz, bestean aizto andi bat ebala, burua moztuteko asmoz. Emazte errukarriak, begiak beragana biurtu ta epea apur bat luzatuteko eskatu eutson.

«Ezta!, jardetsi eutson senarrak. Ipiñizu zure gogoa Jaunaren eskuetan». Ta besoa gora jasorik...

Une atan bertan atean jo eben indarrez. Bizar Urdiña geldi-geldi geratu zan. Ta ara, zaldun bi barruratu ziran. Ezpatak eskuan, Bizar Urdiña 'gana artez-artez ba-etozan.

Bizar Urdiñak laster igarri eutson gudari bi areik bere emaztearen nebak zirala. Ta, bere burua bizirik atara gura 'eban, igesari emon eutson.

Baiña, eskillerara eldu barik, gudari bien atzaparretan jausi zan. Ezpatakaz gorputza zulatu eutsoen alderen alde ta antxe gorpu itxi eben.

Emazte errukarria ia senarra baizen illa egoan ta ezin indarrrik atara bere nebak laztanduteko.

Bizar Urdiñak ez eban oñordekorik itxi. Orretara ezkeron aren ondasun guztien jaube egin zan bere emaztea. Ta olantxe banandu ebazan bere ondasunak: zati bat bere aizta Anarentzat, antxiña maite eban gizon jator bat egaz ezkondu teko. Beste zati on bat bere neba bientzat, kapitan-maillaraiño eldu eitezan. Enparaua berarentzat gorde ta gizon zintzo bat egaz ezkondu zan.

Onelan aztu yakozan Bizar Urdiñagaz eroan bear izan ebazan lor —atsekabeak.



ORKOLOTXO

Beñola egurgin bat bizi zan bere emazte ta zazpi semeakaz. Gazteenak zazpi urte baiño ez ebazan. Zarrenak amar.

Ez-euki gorrian bizi ziran. Gaiñera, zazpi semeak ogia irabazteko gauza ez izan oraindiño! Sasoi txarra, benetan, etxe arentzat.

Ta auxe tamalgarriena: seme txikiena, oso txikerra bera, makaltxo etorren. Ori zala-ta, on utsa ba 'zan be, lelo samar emoten eban. Orkolotxoa eritxoen, orkolo atzamarra baiño andiago ez zan-da. Baiña anai guztietan zuurrena, bera. Berba egiteko atzera ba 'zan be, entzun orduan adi-adi egoten ekian.

Urte baten gosete andia izan zan eta senar-emazte txiro areik euren semetxoak etxetik kanpora bialtzea erabagi eben.

Gau baten, umeak lotan egozala, su-ondoan jazarrita, egurgiñak, biotz-urraturik, emazteari

esan eutson: «Ikusten dozu ezin doguzala gure semeak aurrera atara; nik neuk ez neunke gura nire begien aurrean gosez ilten ikusi. Alan ba, biar basoan galdu daitezcan itxiko doguz. Errez egin geinke ori. Eurak egurra metatzen diarduen bitartean, guk alde egingo dogu eurak konturatu barik.

—Ederto!, deadar egin eutson emazteak. Zure semeak galtzeko biotzik izango dozu? Senarrak txiroak zirala-ta ekin da ekin arren, berak ezin eban olakorik onartu. Beartsu ba 'zan be, ama lenago.

Azkenean, gosez ilten ez ikustearren, baitetz, ondo egoala esan bear ta lotara joan zan, negar eta negar.

Orkolotxoak dan-dana entzun eutsen gurasoi. Etxeko goraberak aitatuten entzunda, oetik altxa ta aitaren aulkipean ezkutatu zan euren autua ondo entzuteko. Joan zan barriro oera tan ezin begirik itxi gau guztian, zer egingo ete eban asmatu eziñik. Jagi zan goizean goizik eta, etxe-ondora joanda, patrikerak arrikoskor zuriz bete ebazan.

Danak etxetik urten eben eta Orkolotxoak ez eutsen ezer esan anaiari berak entzunda-koagaitik. Baso sarratu baten sartu ta egurgiañak egurra ebateari ta umeak egur-pilloak egiteari ekin eutsoen. Aita-amak umeak bearrean sendo iñardueta ikusirik, eurakandik alde egin eben, bidetxigor ezkutu batetik ostendu artean. Umeak euren buruak baso-erdian galdu-ta ikusirik, deadar eta negarrez asi ziran. Orkolotxoa ez zan asko larritu, etxerako bidea ba-ekian-da. Basorakoan, bada, bide guztia, an-emenka, arri koskorrez beterik itxi eban. Orre-gaitik bere anaiari esan eutsen: «Ez izan bildurrik, anaiok. Etxera biurtuko gara. Aita-amak emen laga gaitue, bai, baiña neuk eroango zaituet etxera barrero: etorri nire atzetik». Alantxe, etorri ziran bidetik etxeratu ziran. Lenngotan ez ziran ausartu barrura sartzen. Ormaren kontra jarri ta gurasoen berbeteari adi-adi egozan.

Etxeratu orduko erriko nagusiak egurgiañari amar ontzako emon eutsozan, aspalditik zor eutsozanak. Orreri eskerrak; osterantzean go-seak ilten egozan gizajoak.

Egurgiañak astia galdu barik aragia eroste-ko agindu eutson emazteari. Ta lagun bik jate-ko baiña geiago erosi eban. Okela jan ez ebela egunak ziran!

Asetu ziranean andrak esan eban: «Ene, nun ete dira onezkero gure umeak? Sobra da-na bai pozik jango leukiela areik! Zuk zeuk gal-du dozuz gure semeak. Ondo esan neutsun nik damutuko yakula. Zer egingo ete dabe orain basoan? Ene Jaungoiko maitea! Otsoak jan ez ba 'dabez! Gogorra bear dau gizonak biotza umeak olan galtzen itxiteko!

Egurgiaña, azkenean, asarratu zan. Emaztea lelo berberagaz, ixildu barik, eta senarrak, ixil-tzen ez ba 'zan, berotuko ebala zematu eutson. Egurgiaña emaztea baizen atsekabeturik egoan, egon be. Baiña emaztea ziri andik, ziri emendik asi zan. Berak, oster, beste askok lege, maite ebazan berba egiten ondo dakien emakumeak. Baiña beti zeatz-zeatz berba egiten dabenak gorrotagarri yakozan. Andra gaxoa negar eta negar egoan: «Ai ene! Nun ete dira nire semeak! Gizajoak! Alango baten, altu

altu esan eban, ate -ondoan egozan umeak entzuteko moduan. Ta asi ziran deadarrez danak batera: «Ementxe gagoz! «Joan zan ariñeketan atea idegiten ta laztan bat emonaz batean esan eutsen: «Au poza, ene umeok, zuok barriro ikustea! Nekaturik zagoze ta goseturik; zu Kepa, lokatzez beterik zagoz! Erdu ona garbituten».

Kepa seme zarrena zan, besteak baiño maiteago ebana, bera legez baltzarana zalako. Maian jarri ta aita-amari adurra erioen umeak jaten ikustean. Orduan danak batera barriketan asi ziran, basoan zelako bildurra izan eben gurasoai azaldu bearrez. Arein poza umeak barriro ikustean! Ontzakoak iraun eben bitartean, beintzat, zoraturik ebiltzan. Baiña dirua joan zanean asi ziran barriro buruausteak. Bigarrenez etxetik bialtzea erabagi eben. Oraingoan lengoan baiño azkozaz urrunago.

Aita-amak ixil mixillean jardun arren, Orkolotxoak dan-dana entzun eutsen. Ta arriskutik zelan urten asmetan asi zan, len legez. Alan ba, goizetik jagi zan bere arrikoskorren

billa joateko asmoz; baiña alperrik. Etxeko atea sendo bai sendo itxita egoan. Zer egin ez ekiala geratu zan. Amak ogi zati bana emon eutsen gosarirako. Ta ba-dakizue Orkolotxoari zer bururatu yakon? Arrikoskorren orde z ogia ondo etorri leikiola-ta bere egikizunerako, gorde eban ogia patrikeran, gero, bidean, ogi-apurak sakabanatuteko.

Gurasoak basoko alderdi sarratu ta illuneraño eroan ta, aitzaki bat artuta, antxe itxi ebezan. Orkolotxoa ez zan asko larritu. Bidean sakabanatutako ogi-apurrai eskerrak bidea beingoan billatuko ebalakoaren ustetan egoan. Baiña usteak ustel urten yakozan. Ez zan ogi apurrik iñundik agertzen. Txoriak azkeneraño jan egin eutsoezan ta.


Axe zan larritasuna! Zenbat eta geiago ibilli, baso-burrurago sartu ta galduago! Gau egin zan ta alako aize indartsua sortu zan, umeak azurretaraiño beldur-ikarak artuta egozan. Alde guztietatik otso gosetien uluak entzutea iruditzen yakon. Ez ziran ausartuten ezer esaten. Ta ozta-ozta zirkin egiten eben.

Gero euri zaparrada itzala jausi zan. Ta an joiazan azurretaraiño busti-busti eginda, laprast an laprast emen, lokatzez ondatuta.

Orkolotxoak arbola batera igon eban, ia andik ezer ikusten eban. Batera ta bestera begiratu ta ara, argi makaltxo bat agertu oso urrunean. Lurrera salto egin ta... ezer ez. Lur jota lotu zan. Alan be, argia agertu zaneke alderdiruntz anaiakaz ibilli ta ibilli, barriro begiztatu eban.

Araxe abiau ziran bildurrez. Bada, sakongune baten sartu ezkerro barriro ezkutetan yaken argia. Atea jo ta etxeoandrea urten yaken. Zer nai dozue?, esan eutsen. Orduan Orkolotxoak jazorikoa azaldu eutson. Basoan galdu zirala ta lo egin gura ebela bertan. Etxekoandreak ain mutiko politak ikusirik, esan eutsen, malkoai eutsi ezinik: «Ene umetxoak, nundik nora zabilte? Etxe au Basojaun baten bizilekua dozue. Ta umeak jaten dituala ez al dakizue?

—Bai, baiña —jardetsi eutson Orkolotxoak dardar baten—, zure etxean artzen ez ba 'gai-



tuzu, basoan otsoak jango gaitue. Ta orretara ezkerro gurago dogu zure gizonaren janari izan. Zuk bigunduten ba 'dozu gugaz errukituko da, urrean». Basojaunaren emazteak barrura sartu ebazan, bere senarragandik gorde al izango ebazalakoaren ustez. Burduntzian ardi oso bat egoan sutondoan. Basojaunaren aparirako; ta antxe jarri ebazan berotuten.

Andik lastertxora, atean gogor jo eben iru edo lau bidar. Basojauna zan, atzera etorrena. Emaztea berealaxe umeak oe-azpian ezkutatu ta atea idegiten joan zan. Basojaunak, lenen-lenen, ia aparria prest egoan ta ardaorik ekarri ete eban itandu eutson. Ta beste barik maian jarri zan. Ardia oindiño odoletan egoan; baiña bost ajola berari! Alde batera ta bestera begiratuten asi zan zer edo zer usainduz. «Ointxe egosi dodan txalarena dozu usain ori —esan eutson emazteak.

—Ez dakit, ba, esan eban Basojaunak. Aragi preskoaren usaiña da emen! Emen ezkuturen bat egon bear da.

Itzok esanaz batera, maitik jagi ta mutikoak ezkutatu ziran oera zuzen-zuzen joan zan. «Ara! oiue egin eban. Niri zirria sartu nairik zabiltz, atso madarikatu ori! Jatea merezi dozu zeuk be; eskerrak pizti zar bat baiño ez zarea-la. Ba-daukat emen bazkari guria Basojaun lagun orrei emoteko. Egunokaz gurera etortzeko ei dira-ta».

Ta banan-banan oe-azpitik atara ebazan. Gizajoak belauniko jarri ziran parkeske. Basojauna, baiña, ez zan bape bigundu. Bai zera, bigundu! Ia begiakaz iruntsi ebazan, okela zati ederrakaz eta emazteak egiñiko saltsa gozoagaz ametsetan. Umiengana urreratu zan kutxillo andi bat zorroztuaz. Ta bateri eldu eutsola ikusirik, emazteak esan eutson: «Zer zabiltz, gizona? Berandu da. Itxi egizuz biarko.

—Ixillik egon, erantzun eutson Basojaunak.

Ta emazteak barriro:

—Gizona, naikoa jatekoa daukazu oraindiño: txal bat, ari bi ta txarri erdi bat...

Ta Basojaunak:

—Arrazoa dozu. Ondo jaten emoiezu ar-
gaïdu ez daitezán. Doazala gero lotara». Ema-
kume zintzoak, pozaren pozaz, apari ederra ata-
ra eutsen. Baiña areik jateko gogo gitxi bildu-
rraren andiaz. Basojauna, barriz, lagunentzat
bazkari ederra ba-eukola-ta, pozez zoraturik
edan-ala edaten asi zan. Ta, jakiña, edariak bu-
ruan jo ta lotara joan bear arin baiño ariñago.

Basojaunak zazpi alabatxo eukazan; zaz-
piak arpegi-azala fin-fiña eben, aítak legez ara-
gi preskoa jan oi ebelako. Motzak ziran, baiña.
Begiak oso biribillak eta txikiak, sudurra kakoa
lakoxea, aboa andi-andia, agiñak zorrotzak eta
bata bestetik urrun samar. Gaiztoak ez ziran
guztiz, oraindiño. Baiña aitaren ezpalekoak
etozan: ume txikiak autsiki egiten ba-ekien,
odola xurgatzeko.

Ordurako lotan egozan, danak oe baten,
buruan urrezko koroe bana ebela. Gela berean
beste oe bat egoan lengoaren bardiña; bertan
sartu ebazan Basojaunaren emazteak zazpi
mutikoak. Ori eginda gero senarraren ondora
lo egiten joan zan. Gaberdian Orkolotxoa oetik

jagi ta bere anaien txanotxuak arturik Basojau-
naren alaben oe-ondora joan zan beatz-burue-
tan. Koroiak kendu ta txanotxuak jantzi eutse-
zan. Ta gero bere anaien buruan urrezko ko-
roiak ipiñi; era orretan basojauna engañatze-
ko. Berak asmau legez gertatu zan dana. Basa-
jaunari, gaberdian itxartu zanean, damutu
yakon mutikoak bezperan ez iltzea. Oetik salto
egin eban; bere aitzo andia artu ta an joian
itsumustuan bere alaben gelara.

Mutikoen oera urreratu ta buruan ikutuka
asi yaken. Orkolotxoa itzarturik egoan da aren
esku ikutua somau ebanean, zelako bildurrak
artu eban! Beste sei anaiak lo egozan. Baso-
junak urrezko koroiak ikutuaz esan eban. «Egi-
teko ederra egingo neban! Lartxo edan neban
bart». Bereala, alaben oera joan ta mutikoen
txanoak ikututean esan eban «Ementxe dira!».

Itzok esanaz bere zazpi alabai samea ebagi
eutsen aiko-maikoetan ibilli barik. Ta lotara
barriro.

Orkolotxoak Basojaunaren zurrungak aditu
ebazanekoxe bere anaiak iratzartu ta aringa

jantzi ta berari jarraitzeko agindu eutsen. Baratzera jatsi ta polito polito ormatik bera salto egin eban. Gau guztia ara ta ona lasterka emon eban dardar baten, nora ezean.

Basojauna itzartu zan eta esan eutson emazteari: «Joan atzoko mutikoak prestatan». Emaztea arrituta geratu zan bere senarraren biotz ona ikusita. Ta prestatan, jantzi ten,, joateko esan eutsola ulertu eban. Neska-mutikoen lo-gelara sartu zanean txundituta gelditu zan bere zazpi alabak samea ebagirik eta odoletan itota ikustean. Aldi txarra egi yakon (olakoetan andrazko geienai orixe gertatzen yake) Agindurikoa betetzeko naiko denbora ez ebalakoan. Basojauna bera joan zan lagunduteko asmoz. Bere arrimena ez zan txikiagoa izan ikuskizun ikaragarri aren aurrean.

«Ene, nik egin dot egitekoa! Zitalok alakuok! Gorriak ikusiazoz bear dautsuedaz. Ta laster atan be!».

Pitxar bete ur bota eutson emazteari arpegira; seneratu zanean esan eutson: «Ekazuz

nire zazpi legoako botak. Ba-noa eurõn billa».

Basojauna ara ta ona, alde batetik bestera ibilli ondoren, umeak joiazan bidera urten zan. Gizajoak aitaren etxetik eun bat pausura aurkitzen ziran. Basojauna ikusi eben, mendirik mendi joiana, ibai zabalak errekatxoak bai 'li-rean Jesus baten igaroaz.

Alango baten Orkolotxuak atx-zulo bat begiztatu eban alderdi aretan. Atx-zulo aretan bere anaiak sartu-erazo ta gero bera be antxe ezkutatu zan, Basojauna noiz elduko begira. Basojauna a ibillaldi luzea alperrik egin ondoan atsedean guraz egoan (zazpi legoako botak asko nekatu egiten dabe gizona-ta). Alabearrez, gure mutikoak ezkutatuta egozan atx-gaiñean ezeri zan. Nekearen nekez lo gelditu zan.

Aren zurrunga ikaragarritzkoak! Mutikoak bildurikaraz egozan, Basojaunak aiztoagaz samea ebagi gura izan eutsenean baiño geiago, bearbada. Orkolotxoak bildur gitxiago eban ta andik aldendu ta etxera joateko agindu eutsen anaiari; ta beragaitik ez kezkatzeko. Berak esan

eutsenez, anka egin ta beingo baten aitarenean sartu ziran. Orkolotxoa Basojaunaren ondoratu zan ta, bigun-bigun, botak kendu eutsotzan berak ipinteko. Botak izugarri luze-zabalak ziran. Alan be, sorginduta ziran-ta, anditu edo txikiagotu leitekezan. Onelan beti norberaren oin-ankaren neurrizkoak ziran, berariz egiñak ba 'lira legez.

Basojaunaren etxe-aldera artu eban. An emazte gaixoa bere alaben aurrean negarrez ikusi eban. «Zure senarra, esan eutson, arrisku andian dago. Lapur-talde baten atzaparretan jausi da ta zin egin dabe bere urre-zidar guztiak emon ezik ilgo dabela. Sastakaia samean, iltzeko zorian ebela ikusi nau ta ara zer eskatu daustan: zein arrisku andian dagoan ta bere diru guztiak luzatu barik emon dagistazuzala, zuri esateko. Osterantzean erruki barik ilgo dabela. Ta txantxetako gauza ez dala ikusi dagizun, bere zazpi legoako botak jantziteko esan daust, bizkorrago ibilli naiten eta guzurrez natorrela uste ez dagizun».

Andra gaixoak, izaturik, eukan diru guztia eman eutson; Basojauna, bada, umeak jan arren, senar zintzoa bai zan. Orkolotxoa Basojaunaren ondasun guztiakaz bere aitarenera zuzendu zan. Antxe poz algaraz artu eben.

Onetan danak ez datoz bat. Batzuk diñoer Orkolotxoak ez eutsola Basojaunari lapurretarik egin. Beroneri botak ostuagaz ez ebala ezer txarrik egin, umien atzetik ibiltzeko baiño erabilten ez ebazalako. Ori diñoenak bide onetik ei dakie, egurgillearen etxean jan-edaten egon ei dira-ta.

Gaiñera diñoer, Orkolotxoak Basojaunaren botak jantzita gero, Erregeren jauregi aldera artu ebala. Bertakoak kezketan bai ebiltzan andik berreun bat legoara aurkitzen zan gudarozteagaitik eta egindako gudaketa zala-ta. Diñoenez, Orkolotxoak Erregeren billa joan ta eguna amaitu baiño len, gudarozte aren gorabera guztien jakitun ipiñiko ebala berba emon eutson. Erregeak baietz ta, alan egitekotan, diruketa andiaren jaube egingo ebala. Arratsalde atan bertan atzera biurtu zan Orkolotxoa

jakingarri guztiakaz. Ori zalata, zenbat gura irabazten eban. Erregeak polito ordaintuten eutson bere aginduak gudarozteari eroatea-gaitik.

Andrazko batzuk bere euren senarrentzako eskutitzak emoten eutsoezan. Baiña ordain eskasa emoten eutsoen-da, orretan irabazitakoa ez zan kontuan eukitzekoa.

Aldikada baten korreo-arduraduna izan ta ainbat diru batu ondoan, Orkolotxoa bere aita-amaren etxera biurtu zan. Ango poza ta alaitasuna bera barrero ikustean! Arrezkero etxeko guztiak, Orkolotxoari eskerrak, iñoizko ondoen ta nasaien bizi izan ziran.

AGERTUTAKO IDAZTIAK:

1. Phedro'ren Alegiak I
2. Martial'en Ziri - Bertsoak I
3. Phedro'ren Alegiak II
4. Fatima'ko Ama Birjiña ta Umeak
5. Euskal Iztegi Laburra (A)
6. Esopo'ren Alegiak I
7. Agustin Deunaren Eskutitzak I
8. Gurutz - Bidea
9. Phedro'ren Alegiak III
10. Batikano II Batzar-Agiriak (Eleiza ta kristau ez diran beste erlijioak)
11. Perrault'en Ipuñak (2-garren argitalpena irarteko)
12. Batikano II Batzar - Agiriak (Gizarte artuemonetakoa bideak)
13. Apuntes de Vascuence (Segundo curso)
14. Lope de Vega - Bakar-Autuak
15. Liturji - Goratzarreak
16. Jaungoikoaren Agerpena (Batikano - Agiriak)
17. Maitale Galdua (olerkiak)
18. Lati-izkuntzaren joskera (Orixe)
19. Euskal Iztegi Laburra (B - D)
20. Kristau - Aziera (Batikano Agiriak)
21. Euskal Iztegi Laburra (E - F)
22. Basoko Loreak (olerkiak)
23. Lo ta Amets (olerkiak)
24. Apuntes de Vascuence (Primer Curso)
25. Katalunya'ko Olerkariak
26. Bidaztien Aterpea
27. Apuntes de Vascuence (Tercer Curso)
28. Euskal Iztegi Laburra (G - I)
29. Galburutan (Gallastegi'tar Kauldi)
30. Euskerazko Meza (Intxausti'tar Artur)
31. Humanae Vitae
32. Euskal Idazleak (I) Mendiburu'tar S.